

OHARRA: LAN HAU EGIN DUEN IKASLEAK EZ DU INOLAZ ERE HEMEN AIDERAZTEN DIREN IRITZIEKIN BAT EGITEN

La Lucha Por La Dignidad: teoría de la felicidad política

LABURPENA

Jose Antonio Marina eta Maria de Valgomaren *La lucha por la dignidad: teoría de la felicidad política* (2005) liburua etikaren genealogia bat da, eskubieak izatearen aldeko borroka historikoaren zailtasun eta lorpenak, baita gaur egungo erronkak, azaltzen dituen.

Zoriontasun politikoaren kontzeptuak garrantzia handia dauka liburu honetan. Aristotelesek esaten zuen bezala, gizakia izaki soziala da, animalia politikoa (*zoon politikon*), bizirauteko ingurukoak behar dituelako. Elkarrekiko behar hontatik abiatuz, historian zehar gizarte antolatze modu desberdinak izan dira. Gaur egungo ikuspuntua edukita, esan dezakegu gizarte antolaketan eta hauen aldaketan helburua zoriontasun politikoa izan dela, hori izanik giza ekintza politikoa gidatu duen ardatza.

Zoriontasun politikoa lortzeko, gizakiak arauak egin dituzte historian zehar. Izan ere, beste animalien gaindik oso ezberdina da gizakia gauza batzuetan, deigarriena aukeramenaren izanik. Aukeramenak determinazio naturalak saihestea ahalbidetzen digu. Honek, argi dago, onurak dakartza, baina gaizki jokatzeko aukerari ere bide egiten dio. Horregatik, “primitiboa” esan ohi zaien gizartetan, baita aurreratuagoetan, arauak finkatzeko joera egon da. Gizarte bakoitzak bere interesekoak ziren balioak mantentzeko finkatzen zituen arauak, horretarako erlijioaz, politikaz eta moralaz baliatuz. Gizarte osatzen zuten banakoen arteko desadostasun eta talkak ekiditeko, piskanaka arauak finkatuz joan ziren, gaur egun ezagutzen ditugun legeak finkatuz.

Hala ere, ez da nahikoa arauak ezartzearekin, izan ere, historikoki arau horiek betearaziko edo epaituko dituen botere baten beharra aurkitu izan. Honek, aldi berean, bidegabekeria juridikoaren beldurra ekarri du. Izan ere, arazo bat beste baten eskuetan uzteak despotismoaren aukerari bidea irekitzen ziola pentsatu izan da, eta aurkitu daitezke horren adibide asko historian zehar; baino botere juridikoak bere kabuz funtzionatzen zuen egitura bat izateari uzten zion ahala, gaur egungo epailearen figura garatuz joan da.

Gorabehera handiak egon dira zoriontasun politikoa lortzeko bidean; hau ikusteko baliagarria izan daiteke aurrerapen moralaren prozesu luze eta zailean zenbait gertakari edo fenomeno nabarmentzea.

Auzi garrantzitsu bat izan da, adibidez, esklabotzaren aurkako borrokarena. Praktika hau oso zabaldua egon da garai historiko eta leku ezberdinetan, ia-ia gaur egunera arte. Baina, zer da, zehazki, esklabotza? Esklabotza sistema bat da non pertsona bat beste baten jabe izan daitekeen, eta askotan gizakiaren ikuspegi jakin batean oinarritu da. Ikuspegi honen arabera, naturatik datorkigu esklabo edo aske izatearena. Esklabotzaren aurkako borroken adibide asko aurkitu ditzakegu, baina gizaki bakoitzaren berezko duintasuna aldarrikatua izan den arte esan dezakegu borroka horiek puntualak edo bat batekoak izan direla.

Honekin batera Demokraziaren aldeko borroka aipatu beharra dago, nahiz agian zuzenagoa litzatekeen “*Isonomia*” esatea “Demokrazia” ordez, hau izan baita demokraziaren aldeko borroketan aldarrikatu izan dena: legearen aurrean berdinak izatea. Beste hitzetan, ez egotea inor legearen gainetik dagoenik, ez despota, ez tiranorik. Historian zehar behin eta berriz errepikatu da legeak errespetatzeak bakarrik egiten gaituela aske, baina baieztapen honen atzean arazoak ere badaude. Legek, tamalez, tiranoak izan daitezke. Demokraziaren aldarrikapenak beste konplexutasun bat hartzen du orduan: legeak gizarteak berak egin behar ditu, bere borondate askeari erantzunez.

Demokraziaren aldeko borrokari oso lotuta, kontzientzia-askatasunaren aldarrikapen historikoa daukagu. Praktika demokratikoaren eskutik, gorputz askea izateaz gain espiritua asktazeko beharra sentitu izan da historia osoan. Pentsamendu askea izateko jakituria eta kontzientzia aske bat behar dela esan izan da, norberak bere burua erabiltzearekin.

Gizartearen aurrerapauso hauek aurrea agin ahala, gaur egun ere badirauren emakumeen zapalkuntza daukagu, eta honi erantzuten dion emakumeen berdintasunaren aldeko borroka. Nahiz aurrez aipatutako borroketan ere egon ziren emakumeen parekotasuna aldarrikatzen zutenak, haiekiko erreakzio patriarkal baten existentziak gaur egungo zapalkuntza sistematikora garamatzate, zapalkuntza hau ez baita gainditu eta emakumeek ezin izan dituztelako gozatu lorpen hauek gizonek bezala.

Arraza diskriminazioak ere gaur egun arte iraun du, eta beraz, gauza bera esan daiteke haren aurkako borrokaz. Honen eraginez, adibidez, demokrazian parte hartzetik kanporatuak ziren arrazakeria sufritzen zutenak, boto-eskubidea ukatzen baizitzaien, emakumeei ere ukatu zitzaien bezala.

Badago, ordea, aldarrikapen bat aurreko guztiak barnebiltzen eta zentzu horretan transzenditzen dituen. Hau senidetasunaren (*fraternité*) aldarrikapena dugu, erlijiotik datorren ideia, Frantziako Iraultzan izan zena gorpuztua. Honek zera esan nahi du, gizadia modu unibertsalean aldarrikatzea, berdintasunean.

Aurrerapen honi dagokionez bi momentu historiko dira garrantzitsuenak. Alde batetik, 1789ko iraultzaren ondorengo Frantziar Konstituzioa daukagu. Bertan, “Askatasuna, Berdintasuna eta Senidetasuna” lemapean, gizabanakoaren alde egin zen, aurretik zetozen egitura sozialak kolokan jarritz. Hala ere, kontuan hartu behar da emakumeak oraindik baztertuak izan zirela. Beste momentu garrantzitsua 1948ko Eskubide Unibertsalen Aldarrikapena izan zen, non, historian lehendabiziko aldiz, gizabanako bakoitzaren duintasuna aitortu zen, duintasun hori edukitzeko eskubideak ezartzen zirelarik.

Izan ere ideia hau , gizabanako bakoitzaren duintasuna, da aurrerapen moral honen gakoa, eta aurreko zapalkuntza guztiak gainditzeko balio duen ideia. Horrela, arrazakeria eta emakumeekiko zapalkuntzak ekarritako legearen aurreko berdintasuna pentsaezin bilakatzen da, baita justizia era despotiko eta bidegabe batean erabiltzea. Gaur egun zailak zaizkigu ulertzen iraganeko gertakari hauek gure gizakiaren duintasun unibertsalaren ideia modernoak ematen digun ikuspegiagatik. Hala ere, oraindik ematen dira zapalkuntza ezberdinak generoagatik, jatorriagatik, edo klase sozialagatik, izan jainko, lege natural edo nazio baten izenean. Nahiz kontzeptu ederra izan gizartea eraldatu edota ulertzeko, praktikan zaila dela argi dago.

Historiak erakusten digu leku guztietan gizarte orok bilatu duela “justizia” edo “zoriontasun” bezalako hitzek izendatutako zerbait, eta gainera, ezberdinak izanda ere, bide antzekoa jorratu izan dutela gizarteek demokraziarantz, arrazionaltasunerantz, banakoaren askatasunerantz... Honen eskutik joan da eta honetarako ezinbestekoa izan da gizabanako bakoitzaren berezko balioa aldarrikatzea. Honen lege aurreko gorpuztea dira gaur egun ezagutzen ditugun giza eskubideak.

IRUZKINA

Norbanako bakoitzari, izateagatik bakarrik, eskubide batzuk aitortzea mugarri historiko bat izan zen. Hala ere, esan daiteke zoriontasun politikoaren atzetik dabilela oraindik gizakia. Onartu beharra dago liburuan aipatzen diren zapalkuntza batzuk badira, eta gaur egun ere entzun daitezkeela oinarrizko giza eskubideak urratzen dituzten diskurtsoak, adibidez, Europa mailan hainbat alderdi politikok erabilitako erretorika xenofobo eta arrazista. Hainbat dira giza eskubideen gauzatze integralak dituen oztopoak.

Alde batetik, era zuzen edo ez zuzenean haien aurka egiten dutenak dira. Giza eskubide unibertsalen aurkako diskurtsoak ez datoz, hasieran pentsa litekeen bezala, eskuinetik bakarrik. Kultur-erlatibismoarekin batera doan erlatibismo moralak, askotan, balizko diskurtso aurrerakoi baten baitan, kolokan jartzen du giza eskubideen unibertsaltasuna. Izan ere, ongia eta gaizkia kulturalak direla esatean, ezinezkoa bihurtzen da unibertsala izango den gizakiaren duintasunaren eta oinarrizko eskubideen definizio bat ezartzea.

Nahiz askok gaur egungo ideia bat dela pentsa lezaketeen, erlatibismoa aspalditik datorren ideia da. Michel de Montaigne (1522-1592), adibidez, urrutiko kultura ezezagunetan oinarritu zen argudiatzeko ez daukagula irizpiderik erabakitzeko egia edo ongia zertan diren, gure herrialdeko ohiturez gain. Bere tolerantziaren apologiak oso muga arriskutsuak ukitzen zituen, kanibalismoa bera onartuz. Honek Ilustrazioan eman zen eta, besteak beste, Rousseau (1712–1778), Voltaire (1694–1778) eta Montesquieu (1689–1755) bezalako pentsalarietan ikus daitekeen “beste”-aren mistifikazio eta idealizazio bati ireki zion bidea.

Erlatibismo moral hau, baita “beste”-aren idealizazio itsuak, gaur egunerarte iraun du, pentsamendu korrante ezberdinen baitan. Postmodernismoa litzake honen erakusle argienetako bat. Metanarratiba eta teoria totalizante guztiak ukatzerakoan, giza eskubideak ere ukatzen dira, zein sarritan mendebaldetar kulturaren sorkuntza ez-unibersalizatzaile gisa aurkezten diren. Hala ere, autore postmoderno guztiek ez diete bizkarra eman etikaren auzia aztertzeari, nahiz Heideggerrek, postmodernismoaren oinarrian dagoen autore garrantzitsuenetarikoak, kontu metafisiko bezala baztertu.

Postmodernismoaren ondorioz eztabaida sakonak piztu dira, adibidez, emakumeen zapalkuntzaren inguruan, onargarria denaren eta onargarria ez denaren artean. Besteak beste, prostituzioaren eta amatasun subrogaturen inguruan dauden desadostasun handiak honen erakusle dira.

Nire ustez, postmodernismoa lehen aipatutako “beste”-aren idealizazioarekin ere lotua dago. Ilustraziotik datorren fenomeno honek miseriaren glorifikazioaren forma hartzen du batzuetan. “Pribilegioen” inguruko diskurtso askok, adibidez, bideratuago ematen dute norbera bere bizi mailagatik lotsa araztera bizi maila okerragoa dutenenena hobetzeko egin beharrekoari buruz hitz egitera baino. Nahiz garrantzitsua izan beste kulturekiko errespetua izatea eta ondo etorri daitekeen eurozentrismoaren inguruan gogoeta egitea, hura egiteagatik denak balio duela esaten bukatzea nahiko arriskutsua izan daiteke.

Baino giza eskubideen gauzatzearen oztopoak ez daude maila ideologikoan bakarrik. Nabarmena da 1948ko Eskubide Unibertsalen Aldarrikapenean azaltzen diren eskubideak gaur egunez direla benetan gauzatzen: goseak, gerrak, talde ezberdinekiko indarkeriak...oraindik badiraute, nahiz aurrerapenak egon direla ere ukaezina izan. Eskubideak aitortzen dira, baino ez dira errealitatean isladatzen. Horren adibide ezin argiago bat da Espainiar Konstituzioak etxebizitza bat izateko eskubidea aitortzen duela, eta aldi berean, *Plataforma de Afectados por la Hipoteca*-k milaka etxegabetze salatzea urtero¹.

Ez da nahikoa, beraz, eskubideak aitortzearekin: Eskubide horiek errealitate egiteko bitartekoak eta neurriak behar dira, eta eskubide horiek egikaritzeko borondate politiko bat. Logikoa izan liteke pentsatzea edozeinek nahiko lukela, adibidez, etxebizitza eskubide

¹ Haien kalkuluen arabera, 2019an 250 etxegabetze egon dira egunero.

unibertzala izatea, baino errealitateak erakusten digu auzia hori baino konplexuagoa dela. Izan ere, adibidearekin jarraitzeko, Espainiak nahi balu ere, gaiz izango al litzake behar adinako inbertsioa egiteko babes ofizialeko etxebizitzetan? 2008ko krisia eta gero sakondu besterik egin ez den ongizate estatuen gainbehera orokortuak eta estatu hauen zorpetze erraldoiak estatuen gaitasun errealak zalantzan jartzeko nahikoa arrazoi dira. Honekin esan nahi dudana da, politikoki ados egonda ere, erronka handia dela hainbat eta hainbat eskubide zabaltzea.

Gainera, giza eskubideak era unibertzal batean errespetatuak izateko beste oztopoak ere badaude. Marxek azaltzen du, bere “Ley Coercitiva de la Competencia”-ren bidez, kapitalistak etengabe haien artean lehiatzera behartuak daudela, haien indar produktiboak etengabe berritu behar dituztelako merkatutik ez kanporatuak izateko (López Arnal, 2019). Merkatuaren izaera lehiakor honen ondorioz, beti existitzen da era batera edo bestera produkzio kostuak txikiagotzeko tentazioa, eta beraz, badago arrisku bat langileen aurkako gehiegikeriak emateko, eta interes orokorrari erreparatu orde, norberaren interes berekoiei begiratzeko. Honen adibide lirake, adibidez, ZARA bezalako enpresek Bangladesh bezalako herrialdeetan jartzen dituzten lan baldintzak.

Estatuaren ahultzeak eta merkatu kapitalistaren logikak eta akumulazio beharrak ez dituzte, lehendabiziko begiratuan, oso leku onean uzten giza eskubideak. Hala ere, uste dut jakin behar dugula bereizten giza eskubideen gauzatzearen eta gizakiak eskubideak izatearen ideiarenean. Bigarrena ez da nahikoa, baino argi dago ezinbestekoa dela lehendabizikoa errealitate bilakatu ahal izateko. Horrenbestez, ez dut uste gizakiaren berriazko duintasunaren aldarrikapenera eramán gintuen bidea alferrikazkoa denik, hori bai, ikusteke dago ea hemendik aurrera zer bide jarraitzen dugun, eta nola egingo dugun pertsona orok bizitza duin eta zorion politikoa izateko.

Bibliografia:

- Arslan, Zühtü. 1999. Taking rights less seriously: Postmodernism and human rights. *Res Publica* 5 zk.: 195-215.
- Baghrarian, Maria eta Carter, J. Adam. 2019. "Relativism". *The Stanford Encyclopedia of Philosophy*.
- López Arnal, Salvador. 2019. “Plusvalor absoluto y relativo, leyes coercitivas de la competencia”. *Rebelión*.
- González, Marco. 2017. Una década de crisis económica deja en estado grave el Estado del Bienestar. *El Boletín*.
2020. “Una vez cerrado el año 2019, según los datos del CGPJ, hablamos de 250 desahucios al día”. Plataforma de Afectados por la Hipoteca. Eskuragarri hemen: <https://afectadosporlahipoteca.com/2020/03/10/250-desahucios-al-dia/>
2016. La industria textil se sirve de la semiesclavitud para hacer negocio. *El Público*. Eskuragarri hemen:

<https://www.publico.es/internacional/bangladesh-industria-textil-ropa-esclavitud.html>